

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANGRAIZ OKAKO UDALA

Euskara ikasteko dirulaguntzak 2025/2026 ikasturtean

BDNS (Identif.): 923550.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/923550>).

Lehenengoa. Onuradunak

Oinarri arautzaileetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak izango dira dirulaguntzen deialdi honen hartzaileak.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da 2025/2026 ikasturtean udalerritik kanpo euskara ikasteko laguntzak ematea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (kanpoan geratzen dira joan-etorrien, mante-
nuaren eta ostatuaren gastuak barnetegien kasuan) eta linean egindako ikastaroak edo euskararen autoikaskuntza.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako udalbatzak 2026ko uztailaren 13an egindako ohiko bilkuran onetsiak; udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezingo da izan inola ere 2.000,00 euro baino gehiago; kopuru hori aurrekontuko 334.434.004 partidatik ordainduko da.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

Eskaera eredu espezifikoan aurkeztu beharko dute, oinarri arauetan adierazitako dokumentazioarekin batera, Iruña Okako Udaleko erregistro gaitan laguntzeko bulegoetan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

Aurkezteko epea: ALHAOn argitaratzen denetik 2026ko urriaren 1era arte.

Langraiz Oka, 2026ko abuztuaren 4a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ